



Prensa oharra

Kontsumitzaileek eman diote saria

EROSKI AUKERATU DUTE BIGARREN URTEZ ON LINE SUPERMERTURIK ONENA

- *Urteko WebShop* saria eman diote EROSKI Onlineri on line supermerkatuen kategorian
- **Bozketan, zenbait ezaugarri baloratu dituzte: kalitatea eta prezioa, sortaren tamaina, bezeroarenganako zerbitzua, eskariak ematearena, promozioak eta erabiltzaileen esperientzia**
- **Espanian dagoen kontsumitzaile-sariketarik handiena da**

Elorrio, 2018ko irailaren 19a.- Bigarren urtez jarraian, on line supermerkatu-rik onena aukeratu dute [EROSKI](#)ren Interneteko denda. Kooperatibak gaur hartu du saria, Bartzelonan, *2018-2019ko Merkataritza Sariketaren zeremonian*

Urteko WebShop saria eman diote EROSKIri on line supermerkatuen kategorian. Kontsumitzaileek ematen dute saria, on line bozketaren bidez supermerkatuaren gogobetetze eta baloratzeko maila orokorra aukeratuta. Espanian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta merkatu azterketarik handienetako bat.

Bozketan, zenbait ezaugarri baloratu dituzte: kalitatea eta prezioa, sortaren tamaina, bezeroarenganako zerbitzua, eskariak ematearena, promozioak eta eskaintzak, eta erabiltzaileen esperientzia.

"Sari hau bigarrenez irabazita, sendotu egin da gure eraldaketa digitalari egin dioten ezagupena; eraldaketa horretan, arlo multikanalerantz jo dugu, zeinaren bitartez esperientzia baikor global bat sortzen baita. Kontsumitzaileek espero dutenaren neurriko proposamena da; izan ere, mundu fisikoko abantailak txertatuak daude on line supermerkatuan, nola eta kanalen arteko erosketa esperientzia uniforme bat bermatuta eta on line erositakoa doan eta berehala jasotzeko modua emanda Click&Drive eta Click&Collect bidez", esan du EROSKIren Online Negozioaren arloko zuzendariak, Mari Mar Escrigek.

EROSKI aldatzen doa arlo digitalerantz, eta saritu egin diote kontsumitzailearen premietara egokitzeko izan duen gaitasuna eta prestakuntza, irtenbide berritzaileak bilatu baititu haren erosketa esperientzia hobetzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)